



PROGRAMA

KOLOKIOA

KULTURA ESKUBIDEEK ZERBAITETARAKO BALIO OTE DIGUTE?

Erronkak eta perspektibak

2
0
2
2

Baiona - Euskal Museoa

EKAINAK 23-24



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies





«Kultura eskubideek zerbaitetarako balio ote digute? Erronkak eta perspektibak» kolokioak kultura eskubideak gu denen esku ezartzea du helburu, zuzenbidearen, politika publikoen eta komunitatei utzi lekuaren ikuspegitik aztertuz. Zer ote dira kultura eskubideak? Nola pentsatuak eta idatziak izan dira? Zer da haien eraginkortasun juridikoa eta politikoa? Nori zuzenduak dira? Nolako oihartzuna dute gutarik bakoitzean?

Kultura eskubideak: tresna juridiko bat

Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalean kultura eskubideak idatziak izan direnetik 1948an, hainbat aldarrikapen, hitzarmen eta lege testu atera dira gai honi buruz NBE, UNESCO, Friburgoko taldea eta Estatu partetik batez ere. Idatzi hauek kultura eskubideen garrantziaren adierazle dira nazioarteko eta nazional mailako lege-testuinguruan. Oinarritzko eskubide hauen historia eta ekarritako aldaketak aipatuko dira kolokioan.

Kultura eskubideak, politika publikoen erreferentzial berria?

Kultura eskubideek politika publikoetan duten eragina aztertuko da kolokioaren bigarren egun erdian. Politika publikoetako eragile batzuek, idatzi normatiboak eta juridikoak bereganatu eta, haien interbentzio eskemetan aplikatzen saiatu dira, analisia tresna bereziak esperimentatuz.

Kultura eskubideak eta komunitateak

Kultura eskubideek pertsona bakoitzaren eskubideak babesten dituzte. Pertsona bakoitza komunitate bati edo batzueri lotua izan daitekenez, zer pasatzen da orduan? Komunitate honen edo hauen ondare kulturala, adierazpen artistikoak, babestuak ote dira aldi berean? Kultura eskubideen dimentsio bikoitza, pertsonala eta kolektiboa, kolokioaren hirugarren gogoeta ardatza izango da.

Artista batzuek hastetik buru parte hartuko dute gogoetaldian, trukaketa momentuetatik azken mahain ingururaino.

N.B. : Mintzaldi guziak euskarara eta frantsesera itzuliak izanen dira.
Jatorrizko hizkuntza pastilla batekin seinalatua da.

EKAINAK 23, OSTEGUNA

08:45 Harrera Baionako Euskal Museoa

09:00 Lehen agurra: Euskal Museoa, Euskal kultur erakundea eta ARI-CNRS erakundea

9:15

12:30

KULTURA ESKUBIDEAK: ERAIKUNTZA JURIDIKOA ETA INSTITUZIONALA

Moderatzailea: Alaia CACHENAUT, antropologiako Cifre doktoregaia EKEEn (EHESS & ARI erakundea)

FR

09:15 **Kultura eskubideak nazioarteko tresnetan: perspektiban ezartzea - Johanne BOUCHARD**

Antropologoa, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandataritzan giza eskubideetan aditua, Aniztasunaren eta kultura eskubideen Behatokiko kidea, baita Friburgoko taldekoa ere.

FR

09:45 **Nortasunetik minoritate nazionaleen kultura eskubideetara - Ivan BOEV**

Konferentzia Irakaslea Estrasburgoko Unibertsitatean, Nazioarteko eta Europako Ikasketen zentroaren kidea.

10:15 **Trukaketa publikoarekin**

10:30 **Pausa**

EU

10:45 **Kultura aniztasuna eta giza eskubideak: kultura eskubideak baliogarriak ote dira? Eduardo RUIZ VIEYTEZ**

Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Unibertsitate Estrategiarako Errektoreordea.

FR

11:15 **Kultura bizian parte hartzeko eskubidearen erabilgarritasuna interes kolektiboen babesarako - Lily MARTINET**

Etnopoloaren arduraduna - Kultura ondare immaterialaren frantses zentroa (Centre français du patrimoine culturel immatériel).

EU

11:45 **Hizkuntza, kultura eskubideen ardatz - Agurne GAUBEKA ERAUSKIN**

Hizkuntz Eskubideen Behatokia-ren zuzendaria.

12:15 **Trukaketa publikoarekin**

12:30 **Bazkaria**

14:00
18:00

KULTURA ESKUBIDEAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK

Moderatzailea : Marie-Andrée OURET, Baionako mediateka, BILKETA

EU

14:00 Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko Foru Legea: eskubideak eta praktikaren gora-beherak - Roldán JIMENO ARANGUREN

Zuzenbidearen Historiako Irakasle Titularra. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Idazkari Nagusia.

FR

14:30 Kultura eskubideak: nola egin?

Jean-Damien COLLIN, *kultura mintzalaria, lurralde elkargo baten kultura gaien zuzendari izana.*

Christelle BLOUËT, *"Réseau culture 21" elkartearen koordinatzailea.*

15:15 Trukaketa publikoarekin

15:30 Pausa

15:45

MAHAIN INGURUA: KULTURA ESKUBIDEAK ETA TOKIKO GOBERNANTZAK

Mahain inguruaren animatzailea : Eguzki URTEAGA, Soziologiako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU)

FR

Kultura eskubideruntzeko trantsizioa: bizipenetatik baloreetara - Maël LUCAS

"Laboratoire de Transition vers les droits culturels" laborategiko koordinatzailea Bordelen.

FR

Kultura eskubideak xede demokratiko bezala - Jean-Claude GUICHENEY

Misio karguduna eta zerbitziburua Bordeleko CESER kontseiluan.

EU

Kultura eskubideak eta euskal kultura: bidegurutzearen arrakalak - Iratxe RETOLAZA GUTIERREZ

"Kultura eskubideak: parte-hartzearen eta gobernantzaren politikak" proiektuko kidea Eusko Ikaskuntza.

16:45 Trukaketa publikoarekin

FR

17:00 Baionako Euskal Museoaren bisita - Sabine CAZENAVE

Baionako Euskal Museoko zuzendaria.

EKAINAK 24, OSTIRALA

09:00 Harrera Baionako Euskal Museoan

09:15

12:30

KULTURA ESKUBIDEAK: ZER LEKU KOMUNITATEENDAKO?

Moderatzailea: Terexa LEKUMBERRI, etnologoa EKEEn, etnopoloren arduraduna

FR

09:15 Komunitateak eta nazionalitateak Hungarian - Pierre-Alain COLLOT

Zuzenbide publikoko konferentzia irakaslea Champollion INU-n (Albi) eta Maurice Hauriou erakundeko kidea (UT Capitole).

FR

9:45 Kultura eskubideak merkatu munduan urtzen ote dira? Nazioarteko konparaketa bat - Lionel ARNAUD

Soziologiako irakaslea Paul Sabatier Unibertsitatean (Toulouse 3) eta Politikaren Zientzia Sozialen Laborategiko zuzendari ordea (EA 4175, Sc Po Toulouse).

10:15 Trukaketa publikoarekin

10:30 Pausa

10:45

11:45

MAHAIN INGURUA: KULTURA ESKUBIDEEK ZERBAITETARAKO BALIO OTE DIGUTE?

Mahain inguruaren animatzailea: Philippe ARRETZ, Euskal Herriko Garapen Kontseilu-ko zuzendaria

Johañe ETCHEBEST, *Euskal kultur erakundeko zuzendaria.*

EU

Jokin IRUNGARAY, *musikaria, kondalaria, taula zuzendaria.*

Arantxa LANNES, *dantzaria, koreografoa, artista, Alabena konpainia.*

FR

Marie HIRIGOYEN BIDART, *herri musika eta kantu irakaslea, herri musiken saileko koordinatzailea. Iparraldeko Kontserbatorioa.*

11:45 Trukaketa publikoarekin

12:00 Kolokioaren itxiera

ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 25 25

info@eke.eus

Dohainik

Gelak 40 pertsonendako tokia du

2022.etnopoloa.eus

ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK

